

**AUTOBUSEN ZERBITZU PUBLIKOAN izandako murrizketen aurrean, EH Bilduren mozioa:**

OÑATIKO UDALAK	
2017 URR 24	
SARRERA	ERABERRA
2549	

## AUTOBUSEN ZERBITZU PUBLIKOAN MURRIZKETARIK EZ

Lurraldebusek, Gipuzkoako Aldundiaren autobus zerbitzuak, Debagoieneko lineak berrantolatu ditu urriaren 2an hasita, Oñatiren kasuan zerbitzu **murrizketa** eraginez.

Murrizketa hauen eragina pairatzen duten hainbat eta hainbat herritarrek (tartean gizarteko sektore zaugarriak) euren **haserrea eta desadostasuna** adierazi digute: langileak, ikasleak, bilobak zaintzen joan-etorrian dabiltzanak, ikastetxe bateko zuzendaria... Oñatiko Gobernu Taldeak bat egiten du hauek adierazitakoarekin. Izan ere, egunerokotasunean zerbitzua erabiltzen dutenen **bizitza kalitatean duen eragina handia da**, eta noizbehinka erabiltzen duenarentzat ere zerbitzua kaskarragoa da.

Egun hauetan entzun dugu Aldundiak erabaki hauek **adostasunez** hartu direla esaten ari dela. Hauxe da gertatu dena: Udalari **bi aukera eskaini zitzaizkion, biak txarrak**, eta bat aukeratu behar izan genuen, bien artean herritarrei kalte gutxien eragingo ziena. Antzuolak, murrizketa hauetan kaltetutako beste herriak, iritzi berdina izan du prozesu honetan. Beraz, Aldundiak ahotan darabilen adostasun hori bi aukera txarretatik bat aukeratzera mugatu da.

Aldundiak planifikatu dituen zerbitzu murrizketak ez dira onargarriak, ikuspuntu **ekonomizista** hutsetik ezarri direlako. Ez da zentzuzkoa XXI. mendean, **ingurumen, ekonomia eta mugikortasun jasangarriaren** ikuspegitik garraio publikoan murrizketak egitea. Irisgarritasun murrizteko pertsonak, ikasleak, hirugarren adinekoak eta autorik ez duten beste hainbat herritar **bigarren mailako hiritar** bezala tratatzea dakar Foru Aldundiaren neurri honek.

Gainera, aurreko legealdian landutako **partaidetza** prozesua (ia 100 bilera herrietan, 5000 ekarpen baino gehiago) eta garraio publikoan eginiko **apustu estrategikoa** zapuztea darama lurralde osoan aurrera eramaten ari diren murrizketa hauek.

Oñatiko udalbatzak honakoa adierazten du:

1. Oñatiko herritarrek **garraio publiko duina** izateko eskubidea dute, eta bailaran lanean, eta ikasten dihardutenek bidaia motz hauek egiteko autobus aldaketak egin behar izatea ez da **kalitatezko garraio sistema**. Berdin bailarako hainbat jende Oñatira lanera eta ikastera datozenak, ez gutxi hauek ere.
2. Oñatiko Udalak eskatzen du galdu diren autobus **zerbitzuak berreskuratzea**, edo gutxienez lan eta eskola sarrera eta irteera ordutan **bailarako lotura zuzenak bermatzea**, gutxienez Bergara, Aretxabaleta eta Eskoriatzara.
3. Herritarrei dei egiten diegu Aldundiaren aurrean eskaera hau aurkezteko euren **babesa** ematera, **sinadura bilketa** bidez. Hontarako udaletxeko sarreran sinadura orria jarriko da datorren astelehenean aurrera.

Oñati, 2017ko urriak.